

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Kulturaren, kirolaren eta gizartearen arloetan 2025. urtean dirulaguntzak emateko deialdiaren oinarriak onesten dituen Alkatetzaren 2025eko apirilaren 7ko 2025/167 Dekretuaren laburpena

BDNS (Identif.): 825617.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 173.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalen dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/conocatoria/825617>.

Lehena. Onuradunak

Dirulaguntza eskatu ahal izango du irabazteko xederik gabeko edozein elkarte eta/edo partikularrek, baldin eta interesa badu kultur, kirol eta gizarte programak edo jarduerak sustatzeko 2025ean zehar, helburu izanik Aiarako udalerri osorako onura publikoko edo gizarte intereseko jardunak sustatzea, eta betiere oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Halaber, onuradun izan ahal izango dira Etxaurren Ikastolako eta Aiaran egoitza duten ikastetxeetako IGEak, betiere deialdiaren helburuak badituzte.

Halaber, Olentzero eta Erregeen desfilea egiteko dirulaguntzak eskuratu ahal izango dituzte administrazio batzarrek, baldin eta deialdian jasotako helburuak badituzte.

Bigarrena. Xedea

Udal programen osagarriak diren programak garatzea, hain zuzen ere, eskatzaileek sustatutako kultura, kirol eta gizarte arloko jarduerak, helburu izanik jardun publikoko edo gizarte intereseko ekintzak sustatzea Aiarako herritarrentzat, eta, horrela, udaleko atalek jarduera eremuetan aurreikusitako helburuak lortzen laguntzea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

ALHAOn argitaratuko dira, baita DDBNn ere.

Oinarriak eta eskaera er edua Aiarako Udalen web orrian daude eskuragarri: www.aiarako-udala.eus.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdia 38.000,00 euroekin dago hornituta.

Elkarte batek, 2025ean jarduerak eta proiektuak egiteko, gehienez ere 6.000,00 euro eska ditzake.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Hilabeteko epea izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

Seigarrena. Beste datu batzuk

Eskaera aurkeztean, eskaerari dagozkion eranskin guztiak beteta aurkeztu beharko dira, eta justifikagiria aurkezten denean, justifikazioari dagozkionak.

Justifikazio agiriak 2025eko urtarrilaren 20a baino lehen, egun hori barne, aurkeztu behar dira.

Arespalditza, 2025eko apirilaren 8a

Alkate-lehendakaria

PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRÍA